







PRESS


ARRASATE 1993ko abenduak 3

215. zenb.





DEFENTSARIK ONENA ...



... BATASUNA

GANBARAK ZURE INTERESAK BABESTEN DITU

Bada zure interesak babesteko eta zeure jabetzak eragindako arazoak aurrikusteko eta konpontzeko era xume bezain egokia:

JABETZA HIRITARREKO GANBARA

Gutxien uste duzunean sortzen direlako arazoak, egunera itzazu kuoten ordainketak. Honela, jabe zaren partetik GANBARAK talde-interesak babesteko dizkizu edozein administrazioren aurrean eta zerga, kontratu-erredakzio, eskakizun, jabe kidetza-estatutu, errenta-arau, legedi, balioztapen eta beste hainbat gairen inguruko argibideak eskainiko dizkizu, eta guzti hau, **kostu gutxi izanik asko balio duen kuota baten bitartez.**



Zure Ganbara Gipuzkoan

GIPUZKOAKO JABETZA HIRITARREKO GANBARA OFIZIALA

DONOSTIA - Bilbo Plaza, 3 behea. Tfnoa. 46 41 33 • EIBAR - Egiguren, 12-14 behea. Tfnoa. 11 75 54 • IRUN - Berrotaran, 7 - 1. Tfnoa. 62 09 91.
ARRASATE - AHOLKULARITZA JURIDIKOA - AURRETIKO TXANDA. Tfnoa. 79 98 86

Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!


ECUADOR

Bidaiak

 Kontzeziño, 2
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 14 06

Memesa

79 42 22


 Aldizkari honek
 Gipuzkoako Foru Aldundiaren
 laguntza jaso du

 Aldizkari honek
 Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
 Turismo Sailaren laguntza jaso du


Oraindik ez zara bete? Barrutik hutsik zaude

Negua hemen daukagu jandantik. Haize hotzak gure gorputza astintzen du.

Etxe berotan sartuta geratu beharrean, kalera irten eta zeruari begira, ibilkera azkarra, ezin geldirik geratu. Edurra bakarrik falta dela dirudi.

Gabonak. Horrelako hotz eta eguraldiak lagundurik, etxean geratu zarelakoan; familia baturik, etxeko berotan... Zerbait asmatu behar eta... erregaloen ohitura, urteko garai honetan. Eskaparate "liluragarriak", argi askorekin, opariz beteta. Ez duzula oraindik oparirik erosi? Umeek, txikitatik ohituta daudenez, eskatu besterik ez dute egiten, eta a ze kasualitatea! telebistan gehien matxakaturako jostailuak ageri dira lista bukaezin gehienetan. Bildurra ematen dit telebistak, jendearengan daukan influentzia horregatik.

Erosi, erosi eta kontsumitu. Hori da helburua. Nola gaur egun, pozik bizi, komoditate eta bizio gabe? Zenbat eta diru gehiago izan, gehiago erosten dugu. Erosi, erosteagatik. Gaur egun gizartean, horretan datza pozatasuna??, desio duzun guztia erosi ahal izatea. Gutxieneko behar guztiak orokorrean konponduta dauzkagun guk (etxea, jana, erropak, etab.), nazio "desarroituetan" bizi garenek, ez dakigu limite-



rik jartzen. Bai, behar bada, soldata edo pagak ahal duen. Gaurkoa, bai, biharkoa... bizitzen.

Eta azkenean, zertaz konturatzen gara? Ba, "pribilegiatu" batzuentzat ezik, besteentzat frustrante bihur daitekeela, gero eta gehiago erostean karrera bukaezin hori korritzen jarraitzea. Gainera, horrek benetan ez gaitu zoriontsu egiten, ni behintzat, "materialak" ez diren "gauza" batzuk pozten naute, nire barnea bete eta hobeto sentiarazi, horiek baino gehiago.

Faltan hartzen dut aintzinako borondatea, tributetako. Sinpleagoa bai, baina hainbeste anbizio gabe eta balore positiboekin osatzen d/zena. Hala ere, gaur egun, "limitean" bizi garen gizarte honetan, gutxik izango dute ikuspuntu hau. Utopia dela? zabaldu gaituzen, komunikatu, elkarrengana hurbildu eta balore indibidualistak, gu geu, kondizionatzen gaituztenak, akatu. Hau da nire gomendioa. "Alea jacta est".

IKER BARANDIARAN

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 08 15

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maitte Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Loge-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatuta. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS
paper birziklatuan egiten da.

ARKO
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

Azaleko argazkiak: Joseba.

I R T A B E R N A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta
hizkuntz bereziera)
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

Mendi taberna

MENDI DA ZURE ETXEA

Maalako Arrabala, 4 Tfnoa: 79 20 54

••••

Hies Reggea

Nor zaren
ze ari zaren
guretzat berdin da,
nor zaren
ze ari zaren
lagunak bagara

Nora zoaz?
norekin zoaz?
guretzat berdin da,
nora zoaz?
norekin zoaz?
hau da zure jaia

Zuria ala beltza zara,
ura edo ardoa,
duzun gustoko
guretzat berdin da,
barre egin dezagun

Bururik makurtu gabe
denok bizi behar dugu,
orain ahaztu
mina eta penak,
ta dantza dezagun.

HITZAK: J.I TELLERIA, D.
ARRIETA, J.R VITORIA

••••

Lagun-Aro, analisiak eta emakumeak

Urtero Lagun-Arok baz-
kide guztioi mediku-
azterketak egiten dizkigu.
Horietan bereziki honakoak
aztertzen direlarik: tentsio
arteriala, odola eta txiza.

Azken honetarako La-
gun-Arok "txiza bilketarako
argitasunak" azaltzen dituen
orri informatiboa eta ontzi-

txoa bidaltzen dizkigu.

Emandako argitasunak
betetzerakoan, hor non has-
ten diren emakumeon kome-
riak!

"Ontzia bakar-bakarrik
erabili behar denean zabal-
du. Txizaren lehen zirrista-
da komunean jausten uzten
da, ondorengoa txizontzian
hartzen delarik" dio orri in-
formatiboak.

Horrela irakurririk erra-
za dirudi, baina zein emaku-
mek asma dezake txizontzi-
aren mutur estu horrekin
punteria ona izaten? Guri
zaila egiten zaigu behintzat;
hala ere, urtero punteria
"olinpikoa" dugula erakus-
ten dugu, ontzitxoak beteta
agertu izan ohi dira eta.

Horregatik, eta bromak
aparte utzita, datorren urtera
begira, honen ardura duzen
noi mutur zabalagoa duten
ontzitxoak bidaltzea eska-
tuko genizueke.

Mila esker.

EMAKUME TALDE BAT

••••

Krisia eta garapena

Krisia eta lana, krisia eta
etekina, krisia eta kon-
petitibitatea, krisia eta ku-
tsadura, krisia eta lanordu
murrizketa, krisia eta solda-
ten jeitsiera, krisia eta gerra,
krisia eta gosetea, krisia eta
planetaren oreka... baina
zertan ari gara?

Krisiaz, eta krisiaren era-
ginaz, gizakumeak historian
zehar bultzatutako garape-

naren kontraesanaz. Horre-
taz ari gara. Azkeneko egu-
notan krisiaren norabidea
zuzentzeko asmotan gehie-
gi asko aritzen zaikigu ja-
kintsuak orohar lanorduen
eta soldaten murrizketan
duela sistemak salbazioa.
Etekinak horrela hobetuko
direla.

Etekinetan datza, bada,
gizakiaren geroa, gizaku-
mearen garapena. Baina zer-
tarako etekin gehiago? Eta
garapena, zertarako?

Urteak daramatzagu ga-
rapenak planetaren bizitza
arriskuan jarri duela jakitun,
begi bistakoak dira garape-
nak miseriari eskeinutako
aldareak; egunero etekinen
etekinak: bi mila lanpostu
galduak. Noiz arte?

Noiz arte jarraituko dugu
suaren gainean dantzan?
Noiz arte etekinen atxakiz
miseriaren eremua areago-
tzen, gizakumeen geroa hon-
datzen eta planetaren bizitza
arriskuan jartzen? Ez al du
etenik dantza zoro honek?

JUAN RAMON GARAI

Aste bi barru, berriro


Kontzesiñoko zubia
tarteko, datorren astean
ez duzu, irakurle, ARRA-
SATE PRESS-ik jasoko.
Guk ere, zuk bezala, at-
seden hartu asmo dugu.
Indarberrituta izango
gaituzu, abenduaren
17ko zenbakia zure
etxera eramateko. Ez
ahaztu, Gabon usainean
gaudenez, Santamase-
tako zenbakia izango
dela! Ondo izan!

Zer iruditzen zaizu ARRASATE PRESSEN ibilbidea?



Karmen Iturbe
Dendaria (37 urte)

Polita, oso polita. Nik as-
tero irakurtzen dut, eta gogor
jarraitzeko esango nizueke.
Normalean dena irakurtzen
dut, benetan.



Adrian Palacios
Jubilatua, 64 urte

Oso ondo iruditzen zait.
Nik ez dakit euskaraz eta, ja-
kina, zukurik ez diot atera-
tzen, baina ondo ikusten dut,
herriko gauzak datoz eta he-
rriaren neurria eginda dago.



Maria Murgoitio
Etxekoandrea (68 urte)

Nik semea espetxean
daukat bederatzi urtean, eta
berak asko estimatzen du. Nik
ez dut asko irakurtzen, baina
beti ematen diot pasadaxoa,
eta gero semearentzako.



Andres Gutierrez
Almazeneroa (29 urte)

Ondo egiten duzuela iru-
ditzen zait. Nahiko interesga-
rria da, eta jende dena itxoi-
ten egoten da irteteko, begira-
tzeko eta. Segitu egiten da
aldizkaria.




Susana Lete
Ikaslea (20 urte)

Nik gutxi irakurtzen dut,
ez naiz oso irakurzalea. Begi-
ratzen ditut tituluak eta, eta
gustatzen bazait, irakurtzen
dut. Baina gutxi.



Jacinto Gonzalez
Ikaslea (21 urte)

Ondo iruditzen zait. Eus-
karaz zerbait ulertzen dut,
baina hitz egin, gutxi hitz egi-
ten dut. Hala ere, begiratzen
dut aldizkaria, bai.



Mireia Arregi
Irakaslea (26 urte)

Interesgarria iruditzen
zait. Baliagarria da herrikoen-
tzat, eta kanpotarrentzat ere
baliagarria zaigu. Ahal izan-
go bazenute behintzat, zabal-
tzea ondo legoke, gehiago
argitaratu.



Patxi Vicente
Santa Agedako langilea
(37 urte)

Guk segitzen dugu aldiz-
karia. Bost urte hauek ederto
ikusten ditut, eta horrela segi-
tu. Oso ondo dago, interesga-
rria da, eta ez diot ageriko
akatsik ikusten.

OKASIOA!!
Informazioa
eta
salmenta
79 19 96

Lokal komertziala salgai
(Ferixalekuko parkearen alboan)
OSO PREZIO INTERESGARRIA
Ordainketa-era eztabaidagai

Begoña
lurrindegia
Drogeria
Jostailuak
Opariak
Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa,
Tfnoa: 79 03 73

LODITASUNA,
LIPOESKULTURA,
LIPOSUKZIOA.

Zelulitia, grasa eta
loditasuna behin betirako
kentzeko.

ESTETIKA KLINIKA
Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)
ARETXABAETA TFNOA: 79 13 54

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Iguaietoria 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udai taldea 79 09 00
 Udai taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udai zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero) 12 01 62
 Gasak 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Nirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarteak 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterra 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 3
 Egunez eta gauez: Camacho, Bergara.
 Gaueko 22.00ak arte: Español. Iturriotz

Larunbata 4
 Egunez eta gauez: Puy, Bergara.
 Gaueko 22.00ak arte: Corcuera. Musakola

Igandea 5
 Egunez eta gauez: Puy, Bergara.
 Gaueko 22.00ak arte: Irizar, Erguin.

Astelehena 6
 Egunez eta gauez: Guallar, Bergara.
 Gaueko 22.00ak arte: Amezuza, Sta. Marina

Astearte 7
 Egunez eta gauez: Estella, Bergara.
 Gaueko 22.00ak arte: Ruiz, Maala.

Asteazkena 8
 Egunez eta gauez: Mozos, Bergara.
 Gaueko 22.00ak arte: Morales.

Osteguna 9
 Egunez eta gauez: Camacho, Bergara.
 Gaueko 22.00ak arte: Azkoaga, Ferrenas.

3 OSTIRALA

ZINEA
 "Los Visitantes". 7etan eta 10etan.

PRENTSAURREKOA
 Maltzaga-Urbina errepidearen aldeko plataformaren aurkezpena. Arratsaldeko 7etan, Monterronen.

NAFARREN EGUNA
 Arratsaldeko 7etan meza, San Juan parrokian. Ondoren plaza jota nafarrak dantzatu dira. 9etan afaria, Aretxabaletako Taberna Berri jate-txean.

28. EUSKAL LIBURU ETA DISKA AZOKA
 Durangon egun osoz.

MUSIKA
 Pabeko "The Space Pigs" taldea. Gaueko 11etan, Elorrioko Kafe Ateneon.

HIESAREN ALDEKO JAIALDIA
 Partehartzaileak: txalaparta taldea, Arrasate Musikal, Tunnantes del Norte, Errebonbillo malabarista, Lore gazteak, Arrostitz, Corazón de Encina, dultzaineroak, erraldoi eta kilikien konpartsa, trikitixa, Al Andalus eta beste talde batzuk. Amaia antzokian, gaueko 10etan. Sarre-ra, 400 PTA.

4 LARUNBATA

ZINEA
 "Los Visitantes". 7.30etan eta 10etan.

28. EUSKAL LIBURU ETA DISKA AZOKA
 Durangon egun osoz.

GIPUZKOAKO AKORDEOI JAIALDIA
 Goizean 9etatik eguerdiko ordubata eta laurden arte. Arratsaldean 3.30etatik 8ak arte. Arrasateko Institutoan. Sarrera dohainik.

GIPUZKOAKO AKORDEO LEHIAKETA
 Goizeko 9etatik 9.30etara, txikien maila. Goizeko 10etatik 12.30etara, junior maila. Batxilergo institutuan. Arratsaldeko 4etatik 8etara, senior maila Amaia antzokian. Sarrera dohainik.

KONTZERTUA
 "Who's Rachel?", punk-folk talde ingelesa. "Une Latzak" Laudiotik. Gaueko 9etan, gatzetxean.


5 IGANDEA

ZINEA
 "Los Visitantes". 7.30etan eta 10etan.

28. EUSKAL LIBURU ETA DISKA AZOKA
 Durangon egun osoz.

GIPUZKOAKO AKORDEOI JAIALDIA
 Goizean 9etatik eguerdiko ordu bata eta laurden arte. Arratsaldean 3.30etatik 5.30ak arte. Arrasateko Institutoan. Sarrera dohainik.

GIPUZKOAKO AKORDEO LEHIAKETA
 Goizeko 9etatik eguerdiko ordu bata eta laurden arte, senior maila Amaia antzokian. Arratsaldeko 3.30etatik 4.10ak arte, txikien maila. 4.30etatik 7.30etara junior maila. Batxilergo institutuan. Sarrera dohainik.



Soinuzaleek badute gozamerako aukerarik asteburuan.

6 ASTELEHENA**ZINEA**

"Tina". 5etan, 7.30etan eta 10etan.

XIV GIPUZKOAKO**AKORDEOI****LEHIAKETAREN JAIALDI ITXIERA**

Goizeko 11,30etan Amaia antzokian. Kategoria bakoitzeko hiru onenen emanaldia eta sari banaketa. 350 PTA.

"ARRASATE HIRIA"**I NAZIOARTEKO****AKORDEOI LEHIAKETA**

Arratsaldeko 5etatik 8ak arte. Amaia antzokian. 250 PTA.

EUSKAL LIBURU ETA DISKA AZOKA

Durango egun osoz.

SAN NIKOLAS

Goxokiak bolo-boloan jaurtiko dira udaletxetik. 12etan hamar urtetik beherakoentzat, 12.30etan hamar urtetik gorakoentzat.

BABAJANA

Begarako San Martin plazan, eguerdian. Gaztetxeak antolatuta. Egunean zehar Kojón Prieto y Los Huajalotes musika taldea tabernaz taberna ibiliko da.

7 ASTEARTEA**ZINEA**

"Tina". 5etan, 7.30etan eta 10etan.

HEMEN GAUDE

Pakearen aldeko sua iritsiko da Arrasatera. Sinadurak bilketarako liburua ere jarriko da. Goizeko 9etatik eguerdiko 1.30etara. Portalioian eguraldi ona badago eta bestela udaletxeko arkupetan. Amaieran kontzentrazio isila egingo da.

"ARRASATE HIRIA"**I NAZIOARTEKO****AKORDEOI LEHIAKETA**

Goizeko 9.30etatik 12.20ak arte eta arratsaldeko 4etatik 7etara. Amaia antzokian. 250 PTA.

**EGUTEGIAK**

Argia eta Sehaskaren egutegiak salgai daude. Argia egutegiak 800 PTA balio dute eta taula erosi ezker 1000 PTA. AED, HIRE, Txintxinpe nahiz egukari kioskoetan daude salgai. Sehaska egutegia AED, ikastolatan, HIRE nahiz Txukunen eros daiteke, 400 PTA ordainduz.

24 ORDU FUTBITOAN

Abenduaren 17 eta 18an, Almeneko kiroldegian. Izenematea abenduaren 13a baino lehen egin behar da eta ekipo bakoitzak 5.000 PTA ordaindu beharko ditu. Monte tabernan nahiz Arrasate Kirolak dendan eman daiteke ize-na.

8 ASTEAZKENA**"ARRASATE HIRIA"****I NAZIOARTEKO****AKORDEOI****LEHIAKETAREN ITXIERA**

Eguerdiko 12etan Amaia antzokian, sari banaketa eta hiru onenen emanaldia. Eduardo ArzamendiK, Alberto Urretxuk eta Larreongi abesbatzak ere musika emanaldia eskeiniko dute. 500 PTA.

BERTSOLARI TXAPELETAKO FINALERAKO AUTOBUSAK

Abenduaren 19an izango da Donostiako belodromoan. AEDk autobusak antolatu ditu bertara joateko. Autobusa Garibaitik aterako da goizeko 9etan. Prezioa 800 PTA. Izenematea abenduaren 16a baino lehen egin behar da, AED, HIRE nahiz Iturriozten. Honez gain taldean bazkaltzera joan nahi baduzu, izena ematean 1.900 PTA gehiago ordaindu. Bazkaria Astigarragan izango da.

9 OSTEGUNA**II. KOMIKI LEHIAKETA**

Lehiaketa honetan O.H.Oko 6. mailatik gorako edozeinek har dezake parte. Lanak euskaraz egin behar dira, beraz testua jartzea ezinbestekoa izango da. Adinaren arabera hiru talde bereiztuko dira. O.H.Oko 6., 7. eta 8. mailakoek gutxienez 2 orrialde aurkeztu beharko dituzte. 14 urtetik 18 urtera bitartekoek, gutxienez 3 orrialde. 18 urtetik gorakoek, gutxienez 4 orrialde. Lanak 1994ko urtarrilaren 10a baino lehen bidali behar dira Jardun Elkartera, Masterrera 13, behea, 20.570 Bergara.

ESKI KANPAINA

Gipuzkoako Diputazioko Gazteria eta Kirol Departamentuak antolatuta. 15-29 urte bitarteko gazteei zuzendua. Bi aukera: eski alpinoa eta "snowboard". Eski alpinoa egun baten edo asteburu batean praktikatzeko aukera dago, abenduaren 11-12 asteburutik aurrera. Lekuei dago kienean, egun bateko irteerak Astun edo Candanchura izango dira. Asteburuako Candanchu, Formigal edo Astunera. Astebetekoak Pal-era. Snowboard-a egiteko asteburuko irteerak antolatu dira Candanchura. Izena emateko, Arrasateko udaleko gazte zerbitzura jo.

EGUNKARIAREN FESTA

Abenduaren 12an egunkaria festa ospatuko da Donostiako belodromoan. Jaialdian Ganbara, In Fraganti, Les Mecaniciens, Anje Duhalde, Su Ta Gar eta Sorotan Bele taldeek hartuko dute parte. Gazteek 300 PTA ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 1000. AEDk autobusak antolatu ditu. Garibaitik aterako da 4etan eta gaueko 10,30ak inguru itzuliko da. Autobusaren prezioa 800 PTA. Izenematea AED, HIRE nahiz Iturriozten, abenduaren 10a baino lehen.

“HBko jendeaz eta bere inguruaz naziak direla esaten da, baina ez nago ados. Hori iraina da 1933 eta 1945 bitartean Alemanian agintean izan zen alderdi nazional-sozialistarentzat: euren burua euskal herraren salbatzaile aldarrikatzen duten hauek baino klase gehiago zuten. (...) HBrekin eta bere adar paramilitarrarekin historia errepikatu egiten dela dirudi. Espero dezagun Idigoras, Erkizia eta konpainiak behingoz “aski da” esateko izan behar dena izango dutela”.

Gorka Lataire arrasatearrak 93-11-28 **EL DIARIO VASCO**

“Denoi interesatzen zaigu Clintonek zer egiten duen, baina gure Udaleko Plenoan zer esaten den gehiago. Schiffer-ek zer jaten duen jakiteak morboa sortzen digu, baina nahiago dugu herriko elkarteren baten errezetak jakitea. (...) Informazio lokalaren grazia da; gure inguruko aldea partikularra itzultzen gaituena. ‘Medio handiei’ aspaldi atera zitzairen auzoko emakumearen ahotza arma legez darabilen leihakidea. Orain, bildu egin behar dira Arrasaten. Argi”.

Amaia Ereñagak 93-11-24

egin

“Jubilazioaren arazoa asignatura pendientea da oraindik Arrasateko Esperientzian.

3000 pentsiodunek osatutako taldea izango gara aurki. Kooperatiben mundura lotzeko era konkretua Lagun-Aron ordezkari izatea litzateke, ez dakit nola eta non. Orain jubilatuta daudenen etengabeko aportazioaren fruitu den dirutza handi samarra administratzeaz arduratzen da Lagun-Aro, behar bezala egin ere zalantza barik, eta jubilatuek ez dute bat ere zerekusirik diru hori admistratzeko erabiltzen den modurekin. Ez ote daukagu, bada, gai horretan zeresanik?”

Juan Leibar

lanhike


Nolakoa beharko luke izan hiesdunekiko arrasatearren harrera?

Arrasatearren jokaera Hies a dutenenganaako, nahiko normala dela esan daiteke. Hau da ez da bazterkeriarik eta marginazioarik somatu eta nahiko jarrera ona azaldu dute. Gainera, elkartasuna adierazten duten ekintzetan ere parte hartu dute. Jakina, noizbaiten gertaera arraroren bat ere pasa da, baina orokorrean pozik gaude.


Hau ez da gutxi, komunikabideek batzutan lagundu baino kalte gehiago egin digutela kontutan izanda. Hain zuzen ere, 3H figura larregi erabili dute. Hau da, homosexual, hemofiliko eta heroinazaleetara mugatu dute gaisotasuna. Era honetan, ahaztu egiten da gaisotasuna hartzeko beste bide batzuk ere badaudela. Gainera, heziketan ere hutsune itzela dago, heziketa sexuala alboratuta dago eta gaisotasunari buruzko informazio gutxi ematen da. Garrantzitsua da eskoletan prebentzio neurri buruz hitzegitea.

Bestalde, herrian ere, gaisotasun honi buruzko informazioa zabaltzea beharrezko ikusten dugu, hain zuzen ere aste honetan hortantxe aritu gara. Jadanik gaisotasuna ez hartzeko neurriak hartzen dituzte heroinazaleek, nahiz eta hauek izan diren neurriak hartzea beranduen animatu direnak. Baina herritar guztiek ezagutu behar dituzte prebentzio neurriak.

Bukatzeko, aste honetan arrasatearrek erakutsi duten elkartasuna eskertzekoa dela esan behar dut. Baina gure elkartean gai honen inguruan lan egingo duen jendea behar dugu; horregatik jendea animatu nahiko gurekin batera parte hartzera.



Eneko Bergara
Hies ekimeneko partaidea




- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

TXOKO TABERNA

Gure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

Otalora, 7 Tfnoa: 79 20 10 ARRASATE



- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

BLUSAS OSAGARRIAK POLTSAK

XAHO

ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie



Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

Jardunaldietako azierto eta hutsuneak

Herri Komunikabidei buruzko Jardunaldien balorazio baikorra egin zuten antolatzaileek eta partehartzaile gehienek. Jendeak interesez hartutako puntuen artean, publizitatea-ri buruzko hitzaldi interesgarria, etikaren ingurukoa edo komunikabideen arteko elkar-loturen inguruan sortutako eztabaida aipa daitezke. Denen arreta piztu zuten, era berean, ATBren zuzeneko emanaldiek eta kaleratutako Arrasate Press bereziak. Guztiarekin ere, hutsuneren bat aipatu zen partehartzaileen artean: herri-komunikazioa bultzatzea dagokien instituzioen falta; hau da, udal erakunde-entzako hutsunea. Udaletako ordezkariak ez zen izan apenas, nahiz eta prezeski euren zuzendutako ponentziak antolatu ziren.

Adibidez

Asteazkena HIESaren nazioarteko eguna izan da. Aurreko asteburuan, Adibidez lemapean erakusketa dotoreak egon dira irekita Sebero Altube plazan. Batetik, Zerra artista



Herri Komunikabideen Jardunaldiak

ARKOk antolatutako Herri Komunikabideen inguruko II. Jardunaldiak izan ziren Aita Menni ospitalean ostiral eta larunbatean, 170 partaiderekin. I. Jardunaldiak ere Arrasaten izan ziren duela bi urte, eta orduan aldizkarigintza bakarrik tratatu zen. Oraingoan, herri-irritati eta telebistek ere izan dute beren esparrua, nahiz aldizkarigintzako lekukotasunak jaso diren batez ere, alor hori baitago hedatuen. Dena den, izandako hitzaldietan irratia eratzeko formulek sortu dute interes handienetakoa, agian, herri askotan (Arrasaten bezala) urrats hori ematekotan egon daitezkeenez.

gasteiztarraren instalazioa, eta HIESaren aurkako mundu guztiko kartelen erakusketa ikusgarria, bestetik, kalistroetan. HIES Ekimenak antolatu du Adibidez.

Gai-ordenean finantza arloko bi puntu bakarrik azaltzen ziren eta biak onartu zituzten. Puntu batean, udalak eskatutako kreditu zaharrak berfinantziatzeko proposamen bat onartu zen aho batez; horren bitartez, interes merkeagoak lortuko dira eta dirua aurreratuko da. Beste puntuan aurtengo aurrekon-

Pleno berezia

Astelehenean pleno berezia izan zen udaletxean.

tuetan aurrikusitako inbertsioak finantzatzeko kreditu bat onartu zen, baina PSE-EEk aurka bozkatu zuen. Inbertsio horietako batzuekin ikastolak finantzatu nahi izatea ez zaie bidezkoa iruditzen sozialistei.

MCCren indarra

MCCk 14. postua du Estatuko enpresa eta talde nagusien ranking-ean, 1992 urteari dagokionez, 397.148 milioi PTako salmenta bateratuekin. Ranking hori urtero egiten du Actualidad Económica aldizkariak.

JAIOTZAK
• Julen Barrutia Roa, azaroaren 23an.
• Jon Ander Kerejeta Luengo, azaroaren 23an.
• Maialen Vazquez Etxebarria, azaroaren 22an.
• Xiker Rodriguez Sarabia, azaroaren 25an.
• Beñat Arabaolaza Lekuona, azaroaren 24an.
• Ion Mondragón Galindo, azaroaren 26an.
EZKONTZAK
Antonio Jurado Raingón eta Eugenia Pablos San Justo, azaroaren 27an
HILDAKOAK
• Tomás Margusino Vara, azaroaren 25an. 79 urte.
• Simón Lizarralde Elorriaga, azaroaren 25ean. 70 urte.



Electrofarailuak


ETXERAKO AUKERA GUZTIAK

Iturriotz, 21 ARRASATE Tfnoa: 79 03 84




Arrasaten,
azaroaren 26an eta 27an

Herri
Komunikabideei
Buruzko II.
Jardunaldiak



ARRASATE AITZINDARI

* **1988.** Abenduaren 2an ARRASATE PRESS
lehenengoko aldiz kaleratu zenean, aro berri bat ireki zen
Euskal Herriko herri komunikabideen historian.

* **1990.** Otsailaren 13an ARRASATE TELEBISTA
arrasatearron etxeetara lehen aldiz sartu zenean ere
nahitaezko erreferentzi puntua bilakatu zen Euskal Herrian.

* **1991.** Azaroan PRENTSA LOKALARI BURUZKO I.
JARDUNALDIAK antolatu ziren Arrasaten.

* **1992.** ARRASATE KOMUNIKABIDEAK (ARKO), Euskal
Herriko lehen herri multimedia sortu zen. Aurrerapauso
handia herri komunikabideen garapenean.

* **1993.** Azaroaren 26an eta 27an HERRI
KOMUNIKABIDEEI BURUZKO II. JARDUNALDIAK eratu dira.

URTE ZIRRARAGARRIAK IZAN DIRA
DENONTZAT, BAITA ARRASATEKO
UDALARENTZAT ERE, ZEREN EKIMEN GUZTI
HAUEK GURE LAGUNTZA IZAN BAITUTE
HASIERA HASIERATIK.

ESKERRIK ASKO ESPERIENTZIA HAU
ERAIKITZEN LAGUNDU DUZUEN GUZTIEI ETA
GURE DESIORIK ONENAK **HERRI
KOMUNIKABIDEEI BURUZKO II. JARDUNALDIEI.**

EUSKARA BATZORDEA



ARRASATEKO UDALA

HERRI KOMUNIKABIDEEKIN

Futbito Txapelketa ZALDIBARRREN



Neguko txapeldunak

Bederatzi jardunaldirekin, lehen fasearen erdira iritsi da Zaldibarko txapelketa. Badauzkagu, beraz, neguko txapeldunak, eta horiekin batera, denboraldiko lehen talde kanporatua: Koak Lait. Ekipo honek azken partiduan antolatu zuen "tangana" dela eta, kaleratu egin ditu antolakuntzak. Horrez gain, pare bat ohar: batetik, aldizkariak aste honetan (gure 5. urteurrena dela eta) daukan forma bitxiagatik, koadernilo honek, 11. eta

12. orrialdeetan hasi, baina gero 25. eta 26.ean jarraitzen du. Beste alde batetik, datorren asteburu luze honetan ez dago partidurik. Hasieran, antolatzaileek larunbatetik asteazkenarainoko jai egunak aprobetxatu nahi zituzten, talde guztiek Zaldibarren joka zezaten. Baina, azken batean, jendeak zubia aprobetxatu eta norabait alde egitea pentsatu duenez, oporrak ematea egokiagoa dela erabaki dute.

Etxeko
janari
bereziak

ONGI ETORRI BERRIRO!

URRIN
EDARITEGIA

Abenduaren 3an
zuen zain
7etatik 9tara

INAUGURAZIOA!!

Uribarri Etorbidea, 22


Tfnoa: 79 95 24 ARRASATE

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
SUM. UGARTE	9	9	0	0	66	11	18
TRIKITI	9	9	0	0	52	9	18
ARLUTZ	9	6	2	1	37	15	14
JEY JULIWER	9	6	2	1	33	16	14
ANBOTOSTE KT	9	6	1	2	27	17	13
ZOTZ	9	6	1	2	34	31	13
BERANGO SUK.	9	6	0	3	32	18	12
SOKOAKOAK	9	6	0	3	35	31	12
UGLYS TXINATO	9	4	2	3	31	26	10
KOKKAS	9	4	1	4	27	25	9
WHISK. LINDE	9	4	0	5	20	32	8
BIZKORRAK AVE. T.	9	2	2	5	22	31	6
AUF DEM KOFFER	9	3	0	6	20	31	6
ALLA KUIDAUS	9	3	0	6	22	44	6
FRAGUEL GOL	9	2	1	6	15	24	5
IKATZ	9	2	1	6	27	45	5
BAYERN LENITZ	9	2	0	7	12	43	4
RESAKAS	9	1	1	7	21	39	3
EUSKAL INDARRA	9	1	0	8	20	42	2
ETXE MOBILIARIO	9	1	0	8	19	40	2

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
FOSFOROS	9	8	1	0	52	10	17
LOS HEREDIA	9	7	1	1	33	14	15
ARR. KRISTALDEGIA	9	6	2	1	35	19	14
NABARROS	9	6	1	2	28	14	13
MIKELOS	9	6	1	2	31	18	13
PEPELUS	9	5	1	3	41	21	11
KAKAJAURI	9	3	4	2	22	17	10
ADELAIDA HAIZEA	9	3	3	3	20	24	9
TXOKO TABERNA	9	4	1	4	18	19	9
HIREI	9	3	2	4	29	32	8
KIRTEN TROPEL	9	3	2	4	22	25	8
SIBILIUS ROVER	9	4	0	5	18	21	8
FOTO IMAGEN	9	2	3	4	22	29	7
MOTZ	9	3	1	5	26	25	7
MZK GANBELAS	9	2	2	5	24	28	6
LOS DALTON	9	2	2	5	33	39	6
POTROSORRI	9	3	0	6	15	23	6
BORROCKN ROLL	9	3	0	6	22	45	6
LEYA	9	2	1	6	21	51	5
CORINTO TABERNA	9	1	0	8	21	59	2

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
ARGI IBILI	9	9	0	0	61	20	18
DANOK LAGUN	9	5	4	0	29	14	14
ZULOAK	9	6	2	1	32	20	14
LEINTZ GARAGAR.	9	6	1	2	42	15	13
ALPEN KRAUSSER	9	6	1	2	43	45	13
IRATI STS	9	5	2	2	37	19	12
ARR. KIROLAK	9	6	0	3	32	24	12
BUKANAK	9	5	1	3	36	28	11
TRONKOTEAK	9	5	1	3	29	27	11
BETRAYER	9	4	2	3	33	27	10
GANBELAS	9	4	0	5	50	51	8
EXC. LETE	9	2	4	3	24	29	8
OJO AVISORE	9	2	3	4	32	38	7
FANCY BOIS	9	2	2	5	24	34	6
NOTXINGAN FLO.	9	2	2	5	27	39	6
DIEGO ANTONIO	9	2	1	6	26	32	5
KOPYPREST	9	2	1	6	23	35	5
OOOLE	9	2	0	7	18	39	4
MONTERREY Z.B.	9	1	1	7	24	43	3
ATXANTA KE TE...	9	0	0	9	13	66	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
AC SURCOS	9	8	1	0	47	17	17
ZULUS	9	7	2	0	61	25	16
CARBUROS	9	5	4	0	37	16	14
POTROAK LORATEGI	9	6	2	1	44	24	14
TUTTIFRUTI	9	6	2	1	47	26	14
TOV ARIXTX	9	6	2	1	32	20	14
LASO ARREGI	9	6	1	2	35	21	13
REVOLUTION ROCK	9	6	0	3	31	19	12
KRISKIBALDA	9	5	1	3	35	25	11
FRANCISCANERR	9	5	0	4	41	32	10
NUEVO TABERNA	9	4	1	4	23	23	9
GURE LEKU	9	3	1	5	27	35	7
MACCABI DE LEV.	9	3	1	5	23	29	7
LOS DIMY	9	1	4	4	23	27	6
SOLANO 7 MARES	9	2	2	5	25	49	6
BODISCA	9	2	1	6	18	32	5
ILUNA TABERNA	9	1	1	7	22	55	3
KOAK LAIT	9	1	0	8	22	48	2
ELISABETH	9	0	0	9	20	55	0
EZKINAKO HONTZAK	9	0	0	9	17	52	0



PINTURA EKOLOGIKOAK
Diferentzia: zure osasuna

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortexoa. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87


Deba Garaia Inmobiliaria



Inmueble eta finantza agentzia

Maala Arrabala, 31. Behea ARRASATE
Tfnoa: 77 01 12

ARRASATE PRESS BOST URTE



Astero-asteroko erronka: aldizkari txukuna egitea.

Bost urteko lanari

“**Bost** urtez astero astero zure buzoian...”. Ez. Topikoa. “88aren amaieran inizatiba berri bat sortu zen AEDko partaide batzuen artean: zergatik ez aldizkari bat euskaraz Arrasate?” Ka! Hori mundu guztiak daki.

Kontuak kontu, ez da eguneroko kontua astero egiten dugun lan baten 215.a izatea eskuartean daukazun hau. Ez hori zenbaki berezia delako, sorrerako datarekin bat egiten duelako baizik.

Ikusi duzunez, kolorea dakar, “izena” aldatu egin diogu: apellidua indartu, nolabait esatearren, izan ere bestela Arrasate Pressi Arrasate edo Arrasate Express” ere deitzen dio jendeak.

Baina ez da itxura aldaketa hori aurrerantzean aldatu nahi genukeen bakarra. Ez horixe. Gure aldizkari honek zure aldizkari izaten jarrai dezan, kalitatean hobetzeari eman nahi diogu lehentasuna. Argitalpen honen gurasoetako batek, Joxe Aranzabalek, oraintsu esan duen moduan, “Nekazariak badaki uzta ona biltzeko ez dela nahikoa hazia edozein lekutan ereitea. Guk badakigu aldizkari batek harrera ona izateko ez dela nahikoa lagunarteko kontua izatea, ezta euskaraz idatzita egotea ere. Nekazariak lur ona bilatu behar du. Guk aldizkari onak egin behar ditugu...”. Zu zara gure lurra, eta zer uzta nahi zenukeen esatea zeuri ere badagokizu.



**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otalora z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarke kalea, 47 beheka Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

Irudi aldaketa Logotipo berria eta koloretako azala

Arrasate Pressek irudi berria estreinatu du 215. ale honekin, bistakoa den bezala. Aurrerantzean, azala, aldizkariaren lehen orrialdea, koloretan izango da. Eta kolorearekin batera, gure izenaren formak eraldakuntza ezagutu du, eta sinbolo berri batez hornitu da. Aldatzen ez dena, gure sena eta gure helburua dira.

Lehen orrialdean, konturatuko zientenez, Arrasate Press izenetik, "Arrasate" txikitu egin da eta "Press" handitu, eta hitzokin, sinbolo berri bat azaltzen da: ARKOKo medio guztien sinbolo berria. Izenaren forma berriarekin, bi nahasmendu ere ebitatu nahi genituen. Oraindik jende askok aldizkariaren izena "Arrasate" edo "Arrasate Express" dela uste du. Espero



ATBko maskota, dragoia, eta sinbolo berriaren egilea, Xabi Diez.

dugu, honenbestez, "Press" izena zabaldu egingo dela.

Azala koloretan egitea ez da erabateko berritasuna. Zerbaki bereziak egin izan direnean (joan den urteko Gabonetan kaleratu ziren biak

bezala) koloretako portada sartu izan dugu, baina hemendik aurrera beti izango da hala. Urrats hau emateko, makina berriez hornitu da gure erre-dakzioa urtean zehar.

Azalaz gain, kontrazala

(azken orrialdea), bigarren eta azkenaurreko orriak koloretan egin ahal izango dira, publizitateari baliabide berri bat eskainiz. Kolorearen ezarpenak Arrasateko astekariaren aintzindari papera bizkortu



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

egiten du. Badira beste herri aldizkari batzuk koloretako azalarekin, baina oso lantzean behin azaltzen dira, ez astero. Hurrengo urrats naturala, barruko orrialdeetan kolorea sartzea izango da, eta lehenbizi, beste kolore bat gehi lekieke barneko orrialde koaderniloiei.

Kolorea eta izenaren diseinuaz gain (mantxeta esaten zaio kazetari hizkeran), ez dago maketa berrikuntzarik aldizkarian. Goio Aranak iaz egindako diseinu-eredu malguarekin segitzen dugu, Txos Azurmendi maketatzailaren eskutik orain.

MULTIMEDIAREN IRUDIA

Baina ez da aldizkaria irudia aldatzen duen elementu bakarra. Gure mantxetako hiruki eraldatua, ARKOren sinbolo berria da. Logotipoa Xabi Diez diseinatzaileak marraztu du. "ARKO multimedia bezala jaio zenetik, iru-

dia bateratzeko ideia beharra zegoen, eta orain egin dugu", komentatzen digu Xabik. 26 urteko marrazkilari hau diseinatzaile industrial da, Fagorrenko I + D (ikerketa eta garapena)



ARKO

PRESS

ARRASATE

departamentuan egiten du lan, diseinu industrialean bati-pat, baina diseinu grafikoa eta dragoia, eta hortik hasita, besteak gehiegi aldatu barik,



ARRASATE

irudiaren sortzailea izan da Xabi eta, horrez gain, Arrasate Telebistako dekoratu gehienengilea da.

Eskuzko zirriborroetatik hasita, ordenagailuetara, Xabi Diezek era-


man du diseinuaren prozedura. "ATBko irudia zen gehien ezagutzen zena, hirukia

eta dragoia, eta hortik hasita, besteak gehiegi aldatu barik,

diseinatu ditut logotipoak". Helburua, irudi bateratua ematearena, lortuta dagoela dio Xabik.

Azken emaitzan, beraz, ATBko sinbolo koloretsuan irudia sinpletu egin da eta dragoia desagertu. Horrek ez du esan nahi ATBko dragoia hilda geratu denik: maskota bezala segituko du. "Bigarren planora pasako da dragoia, programen kareetatik (sarrerako irudietatik) igoyal desagertu egingo da, baina pegatina batean zentzua edukiko du oraindik», kontatzen digu Xabik. Oraindik bere lana amaitu gabe dauka logotipoen diseinatzaileak. "Soporte desberdinetarako ereduak egin behar ditut, irudiak zuribeltzean, negatiboan, telebistako programa bakoitzerako bariantak...".

Dudarik ez dugu laster arrasatearrek euren sentituko duten beste ikur bat distingitzen jakingo dutela.



Agustin Larrañaga
Etxe-Andiko Sukaldaria

Charra: Galdetze hutsagatik andregiak oparia jasoko du

OÑATIN, Torreauzo 9. Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90

Etxe-Aundi

Jatetxea


- Zer gomandatuko zenioke ezkontza prestatzen ari den bikote bati?
- Beno, nik esango nioke hona etortzeko, gutxienez galdetzerara, eta ez pentsatu Etxe-Aundi garestiegia denik. Eurek esandako prezioan proposatuko diet nik menua.

Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue, EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU




C.A.V.A. DE COGNAC 1974


Nola egiten da ARRASATE PRESS?



Ostegunero, hurrengo alea prestatzeko bilera egiten dugu Arrasate Presseko langile guztiok: Arantzazu Loidi, Maria Agirre, Txos Azurmendi, Luis Fernandez eta Maider Egües.



Bilera bukatu bezain pronto, elkarrizketatuak izango direnei telefonoz deitzea komeni izaten da.



Notizia ezagutu orduko datu guztiak ordenagailuan sartzen dira.



Maketatzaileak aldizkariari itxura ematen dio.



Era guztietako akatsak izaten direnez, komeni da hauek zuzendu eta egunero egiten den lanaren kontrola eramatea.



Maite, Amaia eta Iñaki dendaz dendaz ibiltzen dira publizitatea saltzen.



PEUGEOT-TALBOT

Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE


.....
**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**
.....

BAZAR
TOKI ON

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE



Haritz Azkarragak Zaldibarko txapelketaren berri zuzena ematen digu keinu eta guzti.



Joseba Vallesek aldizkarirako argazki batzuk atera eta guztiak errebelatzen ditu.



Aldizkaria osatua dagonean, Oñatiko Gertu inprimategira eramaten da. Bertan filmatzen da aldizkaria.



Ostiralero makina handi honetatik jaiotzen da Arrasate Press.




Azkenik, 30 gazte inguru arduratzen dira zuen etxeetara aldizkaria eramateaz.



Mondeo

MUGARRI

Mondeo



Barruko indardun edertasuna

Injinerutza aurreratua eta aitzindaririk gabeko maila teknikoa.

Nola ikusten dute ARRASATE PRESS beste aldizkariek?



**Karmele Tolosa
Ttipi-Ttapa (Bortziriak)**

Ttipi-Ttapa hiltzeko zorian zegoanean, enteratu ginen ARRASATE PRESS hor zegoela, eta ikustera etorri ginen, eta pixka bat bere modua kopiatu egin genuen. Beraz, gure zorionik beroenak emango genizkioke eta urte aunitzez jarraitzeko horrela.




**Matias Escribano
Ribera Navarra (Tutera)**

ARRASATE PRESSEN izae-rako agerkari batek bost urte betetzea pozgarria da, ez baita sarritan gertatzen. Nik honen jaiotza eta hastapenak ezagutu nituen, eta banekien gero hau hala izango zela, ARRASATE PRESS egin duten pertsonak talentuz, irudimenez eta, batez ere, oinak lurrean izanda jokatu dutelako.



**German Larrañaga
Arizondo (Bergara)**

Halako medio batek herria bultzatzen du eta herritik hartzen du indarra. Gure hizkuntza defenditu behar dugu, eta udalek hizkuntzaren alde egiten dute lan, baina beren akatsa litzateke ez dutela informazioa profesionaltasunez tratatzen. Dirulaguntzetan kriterio linguistikoak bakarrik bideratzen dituzte; hizkuntza defenditzea ondo dago, baina guztien informazio-eskubidea ere defenditu behar da.




**Patxi Gezuraga
Argia**

Ikusten da herri aldizkari-gintzan aintzindari izan dela, eta herri mailako funtzio batzuk ondo betetzen ditu. Beste askoren eredu izan da. Arrasaten bezala, beste herrietan beharrezkoa da hori, herri mailako albisteak lantzeko, euskaraz izanda gainera. Esperientzia positibo bezala baloratzen dut.



**Joseba Gorostiza
Geu Gasteiz**

Gure proiektua hasi genuenean, Arrasateko nondik-norakoak hartu genituen erreferentziatuz. Uste dut egin dena sekulako lana izan dela. Berari esker, mobida bat sortu da herri komunikabideen inguruan. Etorkizuna ezin dut asmatu eta ez dakit noraino iritsiko den bide hau, baina bost urteko ibilbidea asko da.



**Ana Aizpurua
Eta Kitto (Eibar)**

Ikusten da produktu finakua dela, ez dabilela, beste aldizkari batzuk bezala, errenka. Esperientzia bat daukala uste dut, eta ikusten da lana egin dela horren inguruan. Gero sortu diren aldizkariak bidea zabaldu diena izan da.



**Jon Mikel Arano
Goierritarra**

Euskal prentsa lokalaren boom-aren sujeto aktiboentakoa izan da. Beste batzuei bidea ireki digu. Dena dela, ezin dena da ARRASATE PRESS bat egin herri guztietan. Badaude beste eredu batzuk ere, adibidez, Ttipi-Ttapa. Gu bailara bat gara eta Goierritarrak sintesi bat egin behar du, Ttipi-Ttapa eta ARRASATE PRESS gure eredu izan daitezten. Denak begiratu, beharretara egokitu, gure aldizkaria egiteko.



**Fernando Elortza
Mailope (Araitz-Betelu)**

Guk, aldizkari txiki batek, nahiko urrutiko gauza bezala ikusten dugu. Guk beste era batera bizi dugu prozesua, baina dudarik gabe ARRASATE PRESS izan da aintzindari guretzat. Oso interesgarria ikusten dugu fenomeno eta aurrera jarraitu behar du.

ARRASATE PRESSEKO euskararen gainean

ARRASATE PRESSEK bost urte bete ditu, bost urte euskarazko herri-prentsaren barruan astero astero aldizkaria kaletaratuz. Ospakizun hori aprobetxatuz, aldizkariak jendeak duen iritzia bildu nahi izan dugu eta kalitateaz galdetu diogu geure buruari. Kalitatea beste hainbat esparrutan zaindu beharreko arlo den arren, zer esanik ez gure lanaren helburu bihurtu dena areagotzeaz ari garelarik, euskararen erabilpena, zabalpena eta normalizazioa.

Ezer normalizatuko bada erabiltzearen premia dagoen arren, gure erabilerari azterketa egin nahi izan diogu honenbestez, eta euskararen arloan zeresana duen hainbat kolaboratzaile edo hurbileko laguntzailerik lutzatu diogu kritika egin diezaguten eskabi-dea.

Hainbat iritzi, kritika eta sugerentzia jaso dugu, eta horietako asko gure eskuarterako oso baliagarri izango diren arren hemen aipatzea aspergarri gertatuko litzateke.

EUSKARA BATUA, EUSKALKIA?

Ateratako zenbait ondorio, aipatzearen, euskara batua-euskalkia eztabaida sortu da. Juan Martin Elexpuru euskalkiari leku gehiago egitearen aldekoa da, bertako bizkaieraren gainean arautze bat egin eta erabiltzen hastearren alde azaldu da behin eta berriaz publikoki defendatu izanduen moduan. Mitxel Kaltzakortak ere herri euskararen erabilpenaren alde egiten du apostu: "euskara salbatzeak

euskara mintzatua salbatzea esan gura du, beraz euskara mintzatu horren zerbitzuan, batez ere, egon beharko luke agerkariok. (...) Horregatik, euskararik apaleneko irakurlea izan behar du bere irakurle ideala herri-aldizkariak. Euskara apala esan dut, ez sinplea".

Bestelako iritzia agertu du Iñaki Mendigurenek: Arrasaten esaten den moduan beste barik transkribatzea "ez zait iruditzen Arrasateko euskararen aberasteko modua denik, jendearen idazmena zeharo nahasteko bidea baizik". Jesus Garmendiak ere bide beretik, ez dut gaizki ikusten euskalkia batzutan erabiltzea; baina jakin egin beharko genuke arrasatearrez idaztea ez dela inondik inora ere ahozkoaren transkribapen hutsa".

AKATSAK ETA ULERGARRITASUNA

Beste aztertzaile batzuk Euskaltzaindiaren arauetan eta hizkuntzaren sistematizazioan fijatuta dira nagusiki. Arlo horretan ere zer zuzendua badugula esan behar, beraz.

Gure irakurlegoa zabala den aldetik, eta euskaraz irakurtzeko ohitura handirik ez dagoela kontutan izanda, testuaren zatiketa eta antolaketa eta luze-laburrari buruzko gomendio batzuk ere jaso ditugu. Testu laburragoak eta hobeto antolatuak egitea, hitz baten esanda.

Jose Mari Velez de Mendizabalen esanetan, "Arrasate Press ederki saiatu da euskara idatziari ezinbestekoa zaion batasuna ematen. (...)

Nik uste, normaltasuneko mailara jaso du euskara idatzia, egotz dakizkiokeen hutsak euskal komunikabide guztienak izanik. (...) badute profesional gazteek zertxobait ikasi behar, izan ere A. Pressen maiztasun handiz ostikada galantak ematen baitizkioite onomastikari, leku-izen, deitura edo gaitzizenei dagozkienean batipat".

Honetan ere, gustora hartuko genukeela edozein irakurlearen iritzia. Azkenean horien eskuetatik pasatzen da eta, astero guk egindako lana.

E

uskara batua eta bertako euskara, non dago muga?













Irakurleari erabiltzen dugun euskara eroso egin behar zaio.

Gure irakurleen iritzia

Bost urtean zehar egindako lana, eta batez ere azkenaldian burutzen ari garena aztertu nahi izan dugu azken egunotan. 200 herritarri luzatu diegu inkesta moduko bat betetzeko xgonbitea; herrian zeresan berezia dutela iruditzen zaigun jende multzoa aukeratu dugu horretarako. Inkestarren zati batzuetan galdetutakoa Otik 9ra puntuatzea eskatzen zen, eta beste batzuetan berriz aportazio edo librea ematea zeukaten.

Arrasate Pressen barne-lanerako izango duen baliagarritasunaz gain, irakurleari ere eman nahi izan diegu lehen emaitzen berri. Hona hemen datu horien muestreo batetik jasotako emaitzak.







Herritarrek ezagutzen gaituzte?

Kaleko inkesta bat ere egin nahi izan dugu boskarren urteurrenarekin bat etorritz. Mondrauetarrek euren herriko komunikabideei buruz zer dakiten eta zer iritzi duten jaso nahi izan dugu. Ondoren ageri diren grafiko hauetako datuak horren lehen emaitzak dira, hurbilketa bat baino ez. Aurrerago sakondu ahal izango da emaitza hauekin azterketa eginez.


Azterketa piloto ondoren, 400 pertsonako muestra diseinatu zuen Errukane Aperribaik inkesta hori, %95eko fidagarritasun tasa eta %5eko errore-margena aurrez zehaztuta. Hiru inkestatzaile ibili



dira sentsuaren araberako distrototan, eta distrito bakoitzean zonalde ezberdinak inkestatuz. Hiru astetan zehar jasotako emaitzak dira, batu ahala ordenadorean sartuz. Inkesta hauetan hiru esparru jorratu dira: ARKO

(Arrasate Komunikabideak, ATB eta ARRASATE PRESS. Hona hemen datu batzuk: Telebista kateak izendatzeko eskatuta, inkestatuen %75ak izendatu du ATB, eta ATB ezagutzen duen galdetuta, %98,3ak erantzun du

baietz. Ikusi berriz, %85,5ak ikusten duela airtortzen du. ARKO jende gutxik ezagutzen du oraindik, %20ak identifikatzen du hitz hori entzunda. ARRASATE PRESSi buruzkoak grafikoetan jaso dizkizuegu:



AZKARRA, ARGIA, MALGUA.

Ez gaitezen engaina, *Dino*. Zu ez zaude XX. mendean bizitzeko egina*. Gure mundu honek erantzun bizkorrak, lehiakorrak eta moldaerazak eskatzen ditu. Horregatik sortu ziren herri komunikabideak, haundi-maundiak astunak, motelak eta garestiak direlako. Eta inoiz ez direlako gure herrietan gertatzen denaz gehiegi arduratu.

Herri Komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak egin ditugu Arrasaten. Pozik gaude. Bost urtetan herrietako aldizkariak, irratiak eta telebistak ugaldtu eta finkatu direlako. Eta benetan merezi izan duelako. Horregatik, ARRASATE KOMUNIKABIDEAK elkartearen izenean eskerrik beroenak babesa, laguntza eta partehartzea eskaini duten guztiei.

Eskerrik asko zuei!

* Jakin ezazu, halere, azken aldi honetan museoetan baino zinean askoz ere maitagarriagoa agertzen zarela.

Bost urtetako bilakaera

Bost urtetan zehar, toki desberdinetan egin da Arrasate Press. Aldizkariari itxura emateaz ere, kazetari ugari arduratu da. Eta nola ez, bere buru ere hainbat zuzendari egon dira.



Jende ugari ibili da lanean Arrasate Presseko erredakzioan.


1988ko abenduaren 2an Arrasate Presseko lehen aleak argia ikusi zuen. Zeharkale Estalian udalak duen pisuan moldatu zen lehen zenbakia. Juan Luis Azkarate eta Begoña Zubia arduratu ziren berri guztiak biltzeaz, Jose Luis Agotek eman zion itxura aldizkariari eta publizitateaz Amaia Garro arduratu zen. Abentura berri horren buru, Joxe Aranzabal arrasatearra zegoen. 16. alean Joseba Valles argazkilaria, egun langile beteranoena dena, gehitu zitzairen eta ordurako Goio Arana, maketatzailer lanetan hasia zen. Gauzek horrela jarraitu zuten 32. zenbakirarte. 1989ko irailaren 15ean, 32. zenbakia Arrasate Pasealekuko bulegoetan egin zen. Ordurako ere, Jon Andueza kazetari lanetan hasi zen eta Ruth Otaduy zen publizitate arduraduna. Toki honetan hogeitazentzako inguru itxuratu ziren. 52.a, berriz, azoka kaleratu zen. Bere garaian hospitala izan zenena, lehendik zeuden zuzendaria eta kazetariak joan ziren eta

eurekin hasi zen lanean Josune Biteri publizista ere. Laster, leku aldaketarik ez baina ezagutu zuen kazetari berririk Arrasate Presseko. 75. zenbakian, ordurarte kazetari izandakoei erreleboa hartu zieten Beñardo Kortabariak eta Arantzazu Loidik. Publizitate arduraduna, berriz, Amaia Sanz zen. Hainbat ale kalera-tzeaz arduratu zen lantalde hau. 113. zenbakitik aurrera eta denbora gutxiren buruan aldaketa nabarmenak izan ziren. Edurne Mujika aldizkarian idazten hasi zen, handik gutxira Iñaki Galdos eta beranduxeago Agurtzane Loidi. Baina zuzendaritzak ere

ezagutu zuen aurpegi berri-rik. Joxe Aranzabalek, 118. zenbakian tokia utzi zion Iñaki Mendigureni. Honen ostean, 133. zenbakian alegia, egun zuzendaria dena, Arantzazu Loidi, zuzendaritza lan-aren kargu geratu zen. Beranduxeago, Kepa Olidenen gain gelditu zen publizitatearen ardura. 1992ko maiatzean, Rosa Mondragon hasi zen lanean eta urte bat beranduago Luis Fernandez. Uda ostean erabat eraberrituta aurrera jarraitu zuen aldizkariak. Beraz, jende eta kalaboratzaile ugari arduratu dira bost urtetan zehar aldizkaria kalera-tzeaz.

H

**asieratik
kolaboratzaileak
ere aldizkaria
osotzeaz
arduratu dira.**



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

**“EDERTU”
ileapaindegia**



San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28





“Neguko txapeldunak” zeintzuk diren badakigu jada, eta gehiegizko sorpresarik ez dago taldeetan, ekipo faboritoak nahiko ondo ibili diren ezkerro. A taldean, parra daude **Suministros Ugarte eta Trikiti**. B taldean lider sendoa dugu: **Argi Ibili**. C taldean, **Fosforos**, nahiko ekipo indartsua, eta D taldean, **AC Surcos** da nagusi.

BELARRIRA

◆ **Partidurik galdu barik.** A taldeko, lidergoan, parra daude **Suministros Ugarte eta Trikiti** (iazko txapeldunak), eta ez dute puntu bat bera ere ihes egiten utzi. Egoera berean dago, partidu guztiak irabazita, B taldeko liderra: **Argi Ibili**. Hala ere, bi puntuko zigorra ezarri zietela kontuan hartu behar da. Hori hala izanik ere, bere atzean doazenekiko abantaila eroso daukate. **Argi Ibilikoak** futbol-salan jokatzen duten **Construcciones Brues** taldekoak dira, eta ez da harrizkoa hor goian egotea.

◆ **Lider gazteak.** C eta D taldeetan ez dago partidu guztiak irabazi dituen talderik. C taldeko liderrak, **Fosforos**, **Gaztetxeko koadrilakoak** dira, eta iaz kanporatu ere egin zituzten lehiaketatik. Aurten, ordea, formal-formal ei dabilta. D taldean, azkenik, **AC Surcos** 18-20 urteko koadrila bat da. Iaz bigarren fasera igaro ziren, baina ez distira gehiegirekin; aurten, ostera, ederto ari dira jokatzen.

EMAITZAK

A TALDEA

Etxe Mobiliario 2 - Fraguél Gol 3
Berango Sukaldeak 2 - Jey Juliwer 5
Auf dem Koffer 5 - Resakas 2
Anbotoste KT 2 - Suministros Ugarte 8
Alla Kuidaus 2 - Uglys Txinato 7
Arlutz 3 - Zotz 3
Bayern Lenitz 1 - Trikiti 12
Bizkorak Avenida tab. 3 - Sokoakoak 4
Euskal Indarra 3 - Koxkas 4
Ikatz 7 - Whiskeria Linde 1

C TALDEA

Hirei 5 - Kirten Tropel 1
Fosforos 4 - Los Dalton 1
Txoko Taberna 1 - Mikelos 2
Arrasate Kristaldegia 2 - MZK Ganbelas 1
Adelaida Haizea 0 - Pepelus 5
Corinto Taberna 5 - Sibilius Rover 2
Borrokn Roll 2 - Nabarros 6
Foto Imagen 2 - Motz 1
Kakajauri 0 - Los Heredia 0
Leya 2 - Potrosorri 3

B TALDEA

Diego Antonio 1 - Fancy Bois 3
Bukanak 1 - Irati STS 1
Atxana ke te merece 0 - Leintz Garagar. 2
Argi Ibili 10 - Notxingan Florest 2
Alpen Krausser 4 - Ooole 2
Arrasate Kirolak 2 - Zuloak 4
Betraye 1 - Ojo Avisore 1
Danok Lagun 9 - Monterrey Zubi Bel 2
Exc. Lete 4 - Kopyprest 1
Ganbelas 1 - Tronkoteak 4

D TALDEA

Franciscanerr 7 - Kriskibalda 3
Elisabeth 3 - Laso Arregi 4
Bodisca 4 - Maccabi de levantar 4
Iluna Taberna 3 - Revolution Rock 5
AC Surcos 3 - Tovarixtx 3
Nuevo Taberna 0 - Zulus 5
Carburos 5 - Solano 7 Mares 3
Ezkiñako Hontzak 3 - Potroak Lorategi 7
Gure Leku 4 - Los Dimy 2
Koak Lait 1 - Tuttifrutti 6

ADI!!!

Lehen 20 bezeroen artean, auto bikain hau zozkatuko dugu



GARAJEAKSALGAI

Amaia antzokiaren ondoan, Ferixalekuko parkean

Ez aukera hau galdu!!

Prezio harrigarriak

Informazioa eta salmenta: Tfnoa: 79 19 96 ARRASATE

BELARRIRA

◆ **Gabonetako egutegia.** Asteburu luze honetan, ez da txapelketako jardunaldirik izango. Hurrengo bi asteburuetan (hilak 11-12 eta hilak 18-19) egongo dira partiduak, eta gero hurrengo bi asteburuetan (Gabon egunekoan eta Gabonzar eta urteberrikoan), berriro jai. Urtarrilean, errege egunaren ostean, berriro jokatu da 8an eta 9an.

◆ **Ez golik, ez penaltirik, ez babarik.** Kakajauri - Los Heredia izan da aurtengo orain arteko partidu tristeena: 0-0. Gainera, partiduan babajana jokatzeko zuten bi taldeek, eta azkenean, ez golik, ez babarik. Iaz, Los Heredia - Motz partiduan babajaneko postura berbera egin zuten, eta parra geratzean, penaltietan jokatzeko erabaki zuten postura (nahiz txapelketako emaitza bere hartan geratu), eta Herediatarrek galdu zuten babajana. Azkenengo honetan, aurrekoan gertatu zena ikusita, Los Heredia-koek ez omen zuten penaltietan arriskatzeko nahi izan.



Aurten kanporatutako lehen taldea Koak Lait izan da

Lehen fasearen erdialdera iritsi behar izan dugu talde baten espultsioa ikusteko. Koak Lait - Tuttifruiti partiduan gertatutakoa izan da Koak Lait-en kanporaketaren oinarria.

Kriskibaldako arbitro bat ari zen partidu hori zuzentzen, eta gauzak normal zihozten bigarren zatia hasi arte. Orduan, oster, Koak Lait-ekoak oso entrada eta falta gogorak egiten hasi ziren, eta halako batean, bi minutuko kanporatzearekin zigortu zuen arbitroak Koak Laiteko jokalaririk bat. Espultsatuak sekulakoak esan zizkion arbitroari, "putasemetik" gorakoak, eta ez bera bakarrik, Koak Laiteko beste batzuk ere irainka hasi

ziren. Beste bat kaleratu zuen arbitroak, eta bronkak segi ahala, hirugarren jokalaria ere kanpora. Koak Lait-ekoak porteroarekin eta bi jokalarirekin geratu ziren, baina bronka batean guztiak. Hori ikusirik, 10 minutu falta zirela, partidua amaitutzat jo zuen arbitroak.

Antolatzaileek auzia aztertu, eta arbitroaren jokabidea onetsi egin dute erabat: eta Koak Lait, kalera, aurretik ere abisatuta zuden eta. Aurrerantzean, kanporatuekin iaz egin zen bezala, Koak Lait-ekin jokatu behar luketen guztiei garaipena (1-0) jarriko zaie markagailuan; eta orain arteko euren emaitzak balekoak izango dira.

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABALETAKO



ARGÍ PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atekak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

Eska ezazu aurrekontua
konpr omezu barik

Erakusketa berria:
Kanpatorpea, 2
(Parrakia ondoan)
ETORRI IKUSTERAI



Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35



Autokarabanak alokatzen dira!

METS

T A I L E R R A K

Tfnoak: 78 19 50 / 78 25 92 OÑATI

- HERGO eta HOBBY karabanak.
- RIVIERA auto-karabanak.
- SANGO erremolkeak.
- Kanping eta karabana guztientzako ordezkot piezak eta osagarriak.





A-8ko kartel bat: Bilbo-Behobiari peajea luzatu nahi diote, Maltzaga-Urbina egitearekin batera.

Autopista: 30 bat iritzi eztabaidatuko dira

Maltzaga-Urbina autopistaren inguruan antolatutako Interbentzio Gune Partehartzailerak (IGP) proposamenak aurkeztutako talde eta partikularrak, joan den astean bildu ziren, IGPetan eztabaidak eta iritzi azalpenak nola antolatuko diren erabakitzeko.

Guztira, 30 bat iritzi, alternatiba edo planteamendu egongo dira IGPetan, eta printzipioz, iritzi bakoitzerako 20 minutuko azalpena zegoen aurrikusita. Hala ere, partehartzailerak gehienei gutxitxo iruditu zitzaion hori, eta luzatu egingo da tartea. Autopista bultzatzen duten instituzioek, bestalde, IGP bakoitzak irauten duen bost egunetako bat osozozorik izango lukete beren trazaketa azaltzeko, eta hori ere kritikatu zuten autopista egoki ikusten ez duten beste talde batzuek, "proiektu ofizialarentzat abantaila" litzatekeelakoan. Instituzioek ez dituzte beren plan publiko egin nahi izan orain arte, eta IGPetan bertan azalduko dituzte trazaketaren xehetasunak.

IGPak urtariletik aurrera hasiko dira biltzen. Zozketaz hautatutako 350 herritarrek 14 Gune osatuko dituzte. Lehenbiziko IGPa, 'Gune pilotoa', Arrasaten bertan eratuko da.

Guneetan beren iritzia azalduko duten taldeen artean, N-1 errepidearen aldeko talde bat, A-8ko peajea luzatzearen kontrako beste bat eta Gatzagako herritarren eskaera bat ere bai, besteak beste. Arrasateko herritar talde batek bailarako trenbide zaharra oinezko eta txirrindularientzako bide bihurtzeko proposamen bat bideratu dute Interbentzio Guneetara.

Bestetik, Maltzaga-Urbina Aldeko Plataforma bat eratu da Deba Garaian, eta ostiral honetan aurkeztu da Arrasaten (aurrerago emango dugu talde honen berri zehatzagorik). Talde honetan enpresa munduko eta kooperatibetako zenbait pertsona ezagunek hartzen dute parte, eta izaera irekia dauka, aditzera eman dutenez.

Intsumiso baten atxiloketa

Joan den ostiralean Ander Goñi intsumisoa atxilotu zuten Arrasaten eta Martutenen espetxeratu zuten. Ander Goñi nafarra, 22 urtekoa, Etxarri Aranazkoa da izatez, baina Arrasaten ari da ikasten eta lanean, eta astegunetan ere hemen bertan bizi da. Goñik 2 urte eta 4 hilabeteko zigorra dauka ezarrita. Atxiloketa ostiralean gertatu zen. Lehenbizi, kalez jantzitako ertzain talde bat Eskola Politeknikora joan zen, bertan injinerutza ikasten baitu Goñik. Une horretan ez zegoen han, LKSn zegoen, bertan lau orduz jarduten baitu informatika arloan lanean. Eskolako ikasleen iturrietatik adierazi digutenez, Eskolako zuzendaritzatik esan zieten ertzainei Goñiren lanlekua- ren berri.

Larrialdietarako brigada



Larrialdietarako Udala Lantaldea sortzea aztertzen ari da Udala. Lantaldeak, orain dagoen suhiltzaile boluntarioen brigada ordezkatu luke. Izan ere, brigada hori ez dabil oso fuerte azken aldi honetan, eta bestetik, Zubillagako suhiltzaileen baseak ez ditu herriko beharrak oso-oso betetzen. Udalaren proposamena Larrialdietarako lantalde berria oraingo udalbrigadako boluntarioekin osatzea da.

Super BM


SUPERMERKATUA
ARABA ETORBIDEA - ARRASATE

ELIKADURA / EDARIAK / TXERRI-HARATEGIA / FRUTA ETA BARAZKIAK / IZOZTUAK / DROGERIA-LURRINDEGIA / TRESNAK

Lose Ar...



**EROSI EZAZU ORAIN
BLACK TRINITRON SONY
"SATELITE PROMOZIOA"
ETA GOZATU MUNDUKO
TELEBISARIK ONENA,
TELEVES ANTENA
PARABOLIKODUNA**




SONY


Arzak

Iturriotz, 15 ARRASATE
Tfnoa: 79 15 16

ORDAINDU AKOBE TXARTELAZ




KAMARA



MINIKATEA



DISKMAN



EKIPOA

SONY

Etxebizitzak

- **Deustun etxebizitza bat** betetzeko pertsona bat falta da. Tfnoa: 79 14 71.
- **Etxebizitza salgai Obenerrekan.** 80 m². 3 logela, 2 bainu, saloia, sukaldea, berogailua, igo-gailua, eta ganbara ditu. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 61 95.
- **Injinaritzako hiru ikasle etxebizitza bila** Arrasaten. Mesedez, azkar-azkar deitu. Tfnoa: 79 41 69.

Etxebizitza saltzen da Gasteizen. Erdialdean. 130 m². Berriztea behar du. Tfnoa: (945) 13 07 27.

- **Gela bat bi oherekin** alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- **Apartamentua salgai** Arrasateko erdialdeko Olatte kalean. Sukaldea-egongela, bi logela eta ganbara. Aire egokitua eta kalefakzioaz. Prezio egokia. Tfnoa: 79 63 16. Gaez deitu. Luis.

• **Donostiako Gros auzoan** neska bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Tfnoa: 29 32 90.

• **Aretxabaletan bi logela** alokagai, sukalderako eskubidez. Tfnoa: 79 04 62.

• **Laukalen, Roneoko etxeetan,** 16,5 m² garaje itxi bat alokatzen da. Lehenengo pisuan. Tfnoa: 79 18 95.

• **Lokal bat salgai.** 85 m². Elcano kalean, 4. Tfnoa: 79 19 99. Manuel Boyzon.

• **Etxebizitzan amueblatua salgai Bergaran.** Artekale, 16 -1^o. Tfnoa: 76 12 81.

• **Familia batek logela bat eskaintzen du.** 2 ohe, eroso, ikasle edo langileentzako. Pentsio erdia edo osoa, aukeratzeko. Jose Luis Iñarra Pasealekua, 25 - Behea, B. Tfnoa: 77 06 87. Rosario.

Aste Gazte

Eski-kanpaina (Diputazioa):

• Asteburuko irteerak: Candanchu, Formigal edo Astunera. Prezioak: 7.400-7.800 PTA (bidaia, goragailuen mugarik gabeko erabilerara, pentsio erdiko ostaturak eta igandeko bazkaria pistetako kafetegian). Material alokairua: 1.500-2.000 PTA, ikastaroa: 1.100-1.800 PTA. Izen emateak Gazte Bulegoan.

Bekak:

- Alemaniako Goethe

Institutoan alemanera ikastaroetan parte hartzeko bekak. Epea: abenduak 6.

Sexualitate tailerrak:

• Begiraleei zuzendutakoak, azkenean, Ozaetan burutuko dira, abenduaren 28tik 30era. Alojamentu eta mantenu-gastuei aurre egiteko 1.600 PTAko kuota finkatu da.

Jardunaldiak:

• "Gazteak eta enplegua". Abenduak 11n: Prestakuntza eta enplegua. Donostian, Antiguoko Kultur

Lana

• **Goizetan ingelesezko klaseak** hartuko nituzke. Bilboko 3. maila egiten ari naiz. Tfnoa: 79 28 49.

• **Enpresa-zientziak egindako** neskak klase partikularrak ematen ditu. O.H.O., B.B.B. U.B.I. edo enpresa-zientzietako ikasleei (mate, kontabilitatea,...). Tfnoa: 79 16 19.

• **Puerikultura titulu** eta esperientziadunak haurrekin edo haurtzaindegian lan egingo luke. Tfnoa: (945) 44 53 31. Eva. Aramaixo.

• **Matematika, Fisika eta Kimikazko klaseak** ematen ditut. O.H.O., B.B.B. eta U.B.I. Tfnoa: 79 42 97. Deitu eguerdietan.

• **Ingelesezko klase partikularrak ematen dira.** Natibo edo lizentziatua. Tfnoa: 71 41 14.

• **O.H.O.ko 8. mailako klase partikularrak** eman- goko nituzke. Euskaraz eta edozein asignaturatakoak. Dei egin 79 28 93 tfnora.

• **O.H.O.ko zein ingelesezko klase partikularrak** ematen dira. Tfnoa: 79 45 60. Sonia.

• **Emakumea prest etxeko lanak** edo lokal komertzialak garbitzeko. Tfnoa: 79 49 50. Edurne.

• **Lanak ordenadorez pasatzen ditut.** Dei egin 1etatik 3etara 79 77 59 tfnora. Fernando.

• **O.H.O.ko klase partikularrak ematen ditut.** Sonia. Tfnoa: 79 30 15.

• **O.H.O.ko klase partikularrak ematen dira.** Gaueko 9etatik aurrera dei egin. Tfnoa: 79 08 08. Ainara.

Salerosketak

• **Estufa japoniarra salgai.** Interesatuak dei egin 79 99 91 tfnora.

• **"Zibro" estufa japoniarra salgai.** Prezio egokia. Kalentadore junkerra ere salgai. Tfnoa: 79 04 54.

• **Nintendo kotsola salgai.** 2. eskuko. Oso ondo dago. 5.000 PTA. 2 mando. 2 joku: Terminator 2 (4.500 PTA); Race-Race (3.500 PTA.) Tfnoa: 79 92 73.

• **Ford Fiesta 1.4 salgai,** SS-X. Oso egoera onean eta prezio ezin hobean: 350.000 PTA. Tfnoa: 79 76 89. Ion.

• **Estufa japoniar bat Zibro Kamin RCA turbo 86 E-1 salgai.** 55.000 PTA. Interesatuak dei egin 76 26 90 tfnora.

• **1200 kg. tarako furgoneta** erosten da. Interesatuak dei egin BAGUK-era. Tfnoa: 79 81 99.

Denetarik

• **Samoiedo txakurrak salgai.** Pedigridunak. Ar eta emea. Prezio interesgarria. Tfnoa: (945) 27 78 44.

• **Astean zehar,** gaueko 9ak inguru, Gasteiztik Eskoriatzarako bidea autoz egiten baduzu, dei egin ALECOPera. Tfnoa: 79 50 11. Esther Perurena.

• **Betaurrekoak galdu nituen** joan den asteartean Arrasaten. Burdinezko markodunak. Deitu 79 89 48 tfnora 9etatik aurrera. Ainhoa.

• **Urrezko pultsera aurkitu dut.** Izena eta data ageri dira. Tfnoa: 79 23 67.

Etxean. Euskadiko Gazte-riaren Kontseiluek (EGK) antolatuta.

Lehiaketak:

• Arrasateko Haratuzteak iragartzeko kartel lehiaketa. Sari bakarra: 50.000 PTA. Epea: Urtarrilak 14.

• Emakumeek idatzitako Kontakizun Laburren II. Lehiaketa. Epea: abenduak 15.

• IX. Pasai Hiria Olerki Lehiaketa. Epea: abenduak 21.

Euskal liburu eta diskoen Durangoko 28. azoka:

• Abenduaren 3tik 6ra arte. 190 erakusmahai.

"Animaliek interesa sortarazten zidateneko adin zoriontsu hura! Harrez gero, hainbeste ikusi eta aspertu egiten naute..."

**P. LEAUTAUD
"LE PETIT AMI"**



**Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**

TAKOLO, PIRRUTX ETA PORROTX **XIRRIXTA**

ALDIZKARIAREN ALDE




Abenduaren 11n
Arratsaldeko 4. 30 eta 6. 30etan
Amaia Antzokian
Prezioa: 200 PTA.

Sarrerak aldez aurretik salgai: **LUDOTEKAN**
Antolatzailea: **ARRASATEKO UDALA**

Juan Jose Orobengoa

“Arrasateko Hiria” nazioarteko akordeoi lehiaketa

Aurtengo “Arrasateko Hiria” Nazioarteko Akordeoi Lehiaketak munduko 10 akordeoilari onenak elkartuko ditu. Juan Jose Orobengoa, Gipuzkoako Akordeoi Konfederakuntzako partaidea, asko ardura-tzen du lehiaketa honek, baina optimista ageri da. Erronka garrantzitsu honi buruz galdetu diogu.



— Zerk eraman du Gipuzkoako Akordeoi Konfederakuntza nazioarteko lehiaketa hau antolatuzera?

— Dagoeneko Gipuzkoako XIV. Akordeoi Lehiaketa antolatuzera goaz. Aurreko urteetako esperientziak erakutsi digu lehiaketa honek jarraipen bat merezi duela. Jarraipen honen zergatia, oso sinplea da: Lehiaketa honetatik ateratzen diren sarituak, Senior eta Junior mailatik ateratzen dira gehienetan, munduko lehiaketa ospetsuenera eta prestigiotsuenera joaten dira, Alemaniako Kinglentalako lehiaketara hain zuzen. Bertan parte hartu eta Euskal Herriko akordeoilari oso postu onak atera ohi dituzte, beraz, lehiaketa hori Euskal Herrira, Arrasatera ekartzea erabaki dugu. Horrela, hemen ere

oso maila altua dagoela ikusiko du jendeak.

— Zein estatuk hartuko dute parte?

— Lehenengo eta behin, Alemaniako Kinglentalako lehiaketan aurten izan duten arazo bat ebitatu nahi izan dugu. Lehiaketa honek, musika estilo eta instrumentu guztietako makina bat partaide elkartzen ditu eta jakina, guztiak ondo atenditzea, ezinezkoa izaten da; hau da, epaimahaiak ezin izaten du musikoa bere fase guztietan entzun. Guk hankasartze hori ebitatu nahi izan dugu, beraz, estatu bakoitzari hona etorri baino lehen aukeraketa egiteko eskatu diogu, horrela, estatu bakoitzetik partaide kopuru mugatua etorriko da. Guztira 15 partaide

etorriko dira. Ukraina, Rusia, Txekoslovakia, Frantzia, Finlandia eta Euskal Herria izango dira herrialde partehartzaileak.

— Nortzuk osatuko dute epaimahaia?

— Zarauzko Francisco Escudero kompositoreak, Moskuko Musika Institutoko zuzendariak, exotikokoki hitzeginez, Japonia eta Holanda artean ibiltzen den japonesa batek, maisu danes batek, polako batek eta akordeoilari austriar batek.

— Non hartuko dituzue atzeritarrak?

— Epaimahaia Arrasate Hotelean egongo da eta estantzia eta mantenua ordaintzen dizkiegu, dena den, bidaia eurek ordaintzen dute, Madriletik hona egiten duten bidaia izan ezik.

Partehartzaileei berriz, egonaldia eta mantenua bakarrik ordaintzen diegu, eta hauek Urizar Hostalean egongo dira.

— Norbaiten alde apostu egingo zenuke?

— Ez. Konpetentzia oso handia da maila honetako lehiaketetan eta egin esan, etorriko diren guztiak dira oso maila oneko musikariak.

Lehiaketaren nondik norakoak

Bi lehiaketa eta jaialdi bat burutuko dira Arrasaten asteburuan, abenduaren 4tik 8ra: Gipuzkoako XIV. Lehiaketa, Akordeoi VI. Jaialdia eta Nazioarteko 1go Akordeoi Lehiaketa.

Gipuzkoako Lehiaketan, estatuko eta Euskal Herriko 30 soinujole arituko dira, onenariakoak. Lehiaketa ohizko hiru kategoriatan egongo da banatua: Seniorrak, juniorrak eta txikiak. 500.000 PTA egongo dira sari ezberdinetan banatzeko. Aipatu beharrekoa da, Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketa Estatuko onena bihurtu dela.


1987an ekin zitzaion berriz, Gipuzkoako Akordeoi Jaialdiari eta aurreko lehiaketaren osagarri gisa antolatu zen. Maila apalagoa duten soinujoleei aukera bat ematea du helburutzat jaialdi honek; hau da, harrobiko jendeari aukera ematea.

Aurten, berritasun moduan, Gipuzkoako Akordeoi Konfederakuntzak sekulako aurrerapausoa eman du, muga guztiak gaindituz. Nazioarteko I. Arrasate Hiria Akordeoi Lehiaketa antolatu du eta. Munduko akordeoilari onenak enzuteko aukera izango dugu, beraz.



Zurgin Kantoi, 2
Tfnoa: 79 20 04
ARRASATE

Elektroinjekzio
Zerbitzua




ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE




JOSEF VACULA
Txekar errepublika

ONGI ETORRI!!
MUNDUKO
SOINUJOLE
ONENAK




PAVEL FENYUK
Ukrania



IÑAKI DIEGUEZ
Irun



OXSANA SHISHOVA
Ukrania




JAN MEISL
Txekar errepublika

ARRASATERA DATOZ,
ABENDUAREN 4TIK 8RA

- Estatuko 290 soinu-jole ere lehian.
- Emanaldiak, Institutoan eta Amaia Antzokian.
- Prezio popularra.
- Ez galdu abenduaren 6an eta 8an Amaia Antzokian egingo diren bukaerako galak.
- Arrasateko Elkarteak arduratu dira egonaldia antolatzeaz
- Partehartzaileen artean, 35 mondrauetar.
- Punta-puntako epaileak.
- Laster munduko onena izango den Akordeoi Lehiaketa, zure etxean, mondrauetarra!

KRISTON MARTXA, HI!!



Arizmendiarrjeta lehiaketa: era guztietako lanak

Jadanik badugu VIII. Arizmendiarrjeta Lehiaketako irabazleen berri. Aurtengo gaia, "Langabezia eta solidaritatea" izan da. Lehiaketa, urtero moduan, bi sailetan banatuta egon da. A saila: Batxilergo Orokorra, B.B.B eta Lanbide Heziketako I-eko ikasleentzat; B saila, Goi Batxilergoa, Lanbide Heziketa II., B.B.Bko 3. kurtsoa edo eta U.B.Iko ikasleentzat. Epaimahaiaren iritiz, A mailako lanak oso sakonak eta kalitatezkoak izan dira, baina ez da gauza bera gertatu B sailako lanekin; hauen edukia, espero zena baino kaxkarra goa izan da. Guztira 20 lan aurkeztu dira, A mailan 9 eta B mailan 11.

IRABAZLEAK

A mailan, lehenego saria "Kukumuxu" lemapean, Saioa Elordui, Mireia Olabe, Alaitz Errasti, Larrait Arando eta Olaia Agirrezabalak irabazi dute, Almen ikastolakoek. Hauek, 150.000 PTako saria jasoko dute. Bigarren saria, 75.000 pztakoa "No te pares, trabaja por la esperanza" lemapean Amaia del Hoyok aurkeztutakoa izan da, Donostiako Askartza-Claret ikastetxetik. 3. saria bi lanek irabazi dute: "Flipper" lemapean, Almen ikastolako Maite Uzkudun eta Maier Velezek aurkeztutako lana, bestea, Donostiako Santa Teresa Ibaeta ikastetxeko "Manos a la obra" lemapean, Priscilla Villafañe eta Blanca Ierre-

rak eraman dute.

B mailan: Lehenego saria hutsik geratu da lanen mailagatik. 2. saria, 125.000 PTakoa, Maria Perez, Sandra Lopez, Ana Belen Garcia eta Elizabeth Horcasek jaso dute, Elgoibarko Institutokoak guztiak. 3. saria, "Hacia una auténtica y solidaria reducción del paro" lemapean, Gueñeseko Francisco Gomez Sedanok eskuratu du. Dena den, 50.000 PTako akzezita bat eman zaio Eteoko Iraultza Alberdi, Jon Urzelay eta Jagoba Albak egin duten lanari.

Irabazleen berri, abenduaren 2ko ekitaldi akademikoan eman zen. Bertan Jose Mari Ormaetxeak hitz egin zuen. Sari-banaketa abenduaren 16an izango da.

LABURRAK

Trikitilarien Batzar Nagusia eta afaria

Urtero urtero abendu aldera egiten duten bezala, aurren ere Arrasateko Trikitilarietako Batzar Nagusia eta afaria egiteko ordua heldu zaie. Abenduaren 10ean eta arratsaldeko 7etan, batzar nagusia burutuko da Monterronen. Bukatu ondoren, ahal bezala, Txikiteo Musikala egingo dute herritik zehar. Afaria gaueko 9etan izango da Eskola Politeknikoko jangelan. Gonbitea guztientzat da, bai trikitilari, panderujole, guraso, neba-arreba nahiz aiton-amonentzat. Prezioa, 1500 PTakoa izango da eta txartelak, Hire dendan egongo dira salgai. Horieta bat eskuratu nahi baduzu, abenduaren 3a baino lehen erosi beharko dituzu. Onegin!

Sexualitate Tailerrak

Hies-Ekimenak antolatua, sexualitate tailer batzuk burutuko dira datorren Urtaurrilean. Adin desberdinetako pertsonen zuzendutako tailerrak izango dira, 20 eta 30 ordutako iraupenekoak. "Sexu seguruko tailerra", "Gazteen tailerra", "Gurasoen tailerra" eta "Hezitzaileen tailerra", horietatik izango dira tailer guztiak. Informazio gehiagotarako, Hies-Ekimenen egoitzara deiegin. Tfnoa: 79-26-99

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

beatriz

oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

ARTOLA KOMERTZIALA

Zerkaosteta, 3
Tfnoa: 79 14 40
ARRASATE

FELIPE MADINA ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

ELKORO expert



TB - BIDEO - SOINUA - LANPARAK - BAZARRA
ZERBITZU TEKNIKOA

Gipuzkoa Etorbidea, 6 (Legarre Pabilioian) Tfnoa: 79 10 37 ARRASATE
 Olarte, 20 (Monterronen parean) Tfnoa: 77 08 28 ARRASATE

PHILIPS 136.900
 PT 542 25"
 Stereo NICAM
 2x25 W
 Teletestua
 Black line S tutu berria
 + oparia

HAMAR
 URTE
 BARRU
 BESTE
 BAT
 OPARI

PHILIPS 28.500
 GR-1227 14"
 Urrutiko
 aginteduna

Stereo NICAM 25"
 3 urteko garantiaz
 Teletestua 99.900+
 Mikrouhina

KENDO

SUPER NINTENDO 19.900

SUPER NINTENDO
 ENTERTAINMENT SYSTEM
 SUPER 16 BITS Nintendo

MEGAPACK 27.480
 MEGADRIVE
 2 JOYSTICK
 4 JOKU (Super
 Hang On, World Cup
 Italia, Columns eta
 Sonic)

SEGA

ES-3 IDAZMAKINA 24.500
 AUTOMATIKOA
 eta
 KALKULADORA
 OPARI

Canon

REGALO
 CALCULADORA
 REGALO

FAGOR 95.900
 CONBI CU-400
 2 MOTOREDUNA
 185X60X57zm

HS 708 RED 7.800
 JUNIOR
 LIKUADORA

Moulinex

4.650

NSX 320 CDaz 59.900
 MINIKATEA
 eta KARAOKE
 2X20 W R.M.S.
 + oparia

aiwa

* (INPRENTAKO AKATS EDO SALGAIRIK GABE
 GERATZEA IZAN EZEAN)

PREZIOAK B.E.Z.a BARNE



eme... interiores

a, eme... interiores

Garibai, 9 ARRASATE
Tfnoa: 943-79 15 03
FAX: 79 14 89

etxeke ekipamendu osoa

